

Bizimodu jasangarrietarantz HERRI AUZITEGIA

Bizi-maila duina izateko eskubidea

Bizimodu Jasangarrietarako Herri Auzitegiak aldarrikatzen duen ekonomia-eredua pertsonen, ondasun komunen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzura dago. Horretarako, duintasunez bizitzeko eskubidea bermatzen duten politikak aldarrikatzen ditugu, baldintzarik gabeko oinarrizko errenta unibertsala eta errenta banatzeko bidezko erredua ezartzearen bidez. Horrez gain lan-esplotazio kasuak salatu ditugu, bizi-maila duinerako eskubidea nabarmen urratzen baitute.

ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA: ARGILAN-ESK

TOKIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

Gutxieneko errenten sistemaren porrota.

Ongizate estatuaren gabeziei aurre egiteko, Europako beste herrialdeetan bezala, EAEn ere martxan dago 1989. urtetik txirotasunaren aurkako politika; horren baitan kokatzen da jarraian aztertutako kasua.

Gaur egun EAEn indarrean dagoen gutxieneko errenten sistema 18/2008 legeak arautzen du, zeina aldatu egin zen 2011n laguntza jasotzen zutenei baldintza gehiago eskatuz eta aukerak murriztuz. Hiru laguntza mota daude: 1) Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), oinarrizko gastuak ordaintzera bideratua, 2) Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko, 3) Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL), gizarte-bazterkeria prebenitzeko, arintzeko edo ekiditeko beharrezko gastu zehatzak ordaintzen laguntzeko.

Hiru prestazio mota horiek jaso ahal izateko baldintza asko bete behar dira. Ia 30 urte geroago, esan dezakegu EAeko sisteman diru-sarrerak bermatzeko errenta eraginkorra izan dela muturreko txirotasuna prebenitzerako orduan, baina ez duela lortu txirotasuna osotasunean ezabatzea; izan ere, EAeko pertsona txiroen %31 ez dira sistemara iristen, eta sistemara iristen direnen %47k txiro izaten jarraitzen dute.

Gainera, nahiz eta eredu honen defendatzaileek kontrakoa adierazi, enplegarritasunaren porrota erabatekoa izan da. Bestalde, Lanbideren kudeaketa erabilgaitza da 2012. urtetik, eta ondorioz, laguntzak jasotzen dituztenak gero eta gehiago sufritzen ari dira.

Nerearen kasua.

Nereak DSBEa jasotzen zuen 2013. urtetik, 3 pertsonako bizikidetzako unitate baten titularra zelako (bera, kidea eta semea).

2017ko ekainaren 8an Lanbidek DSBEa eten zion hiru arrazoiengatik, nahiz eta Nereak arrazoi horiek aurrez justifikatu zituen. Arrazoi horiek honako kontuekin lotu zituzten: bere kideak Brasilen zituen ondasunen ziurtagiri bat, senideengandik jasotako diruaz Lanbide ez informatzea eta Nereak egindako ustezko iruzurra, zeinaren arabera aitortu ez zituen bestelako diru-iturriak zeuzkan.

2017ko uztailaren 7an Nereak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, eta horrekin batera, baita honako dokumentuak ere: Brasileko ondasunen ziurtagiriaren eskaera-gordekina (Lanbidek exijitzen duen Hagako apostillarik gabe), diru-sarreraren bat egin zuten senideen zinpeko deklarazioa, eta deklaratu gabeko diru-sarrerak iruzurraren bidez jaso beharrean bestelako motiboengatik jaso zituelako justifikazioa, nahiz eta azken motibo horiek Lanbidek ez zituen aintzat hartu.

Lanbidek behin-betiko ebazpena aurkeztu zuen abuztuan; bertan errekurtsoa ezetsi, eta 2015/04/08 eta 2016/07/05 artean jasotako 13.000 € baino gehiago itzultzeko eskatu zion Nereari.

Bizimodu jasangarrietarantz HERRI AUZITEGIA

Eusko Jaurlaritzak (EJ) Lanbideren kudeaketa arazoak maltzurki erabiltzen ditu eraso egiteko DSBE/EPO laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboari. Horrela, bizikidetzako unitate askok praktikan baldintzak bete arren, EJK laguntzak jaso ditzaten eragozten du, eta sistematik kanporatzen ditu beste hainbat unitate, prozedura ilegalean eta administrazio-praktika okerren bidez.

Honek agerian uzten du egungo errenta minimoen sistemak ez duela inoiz lortuko txirotasuna ezabatzea. Hortaz, gero eta beharrezkoagoa da bestelako eredu bat, diru-sarrerak bermatzea herritarren eskubide, eta ondorioz, eskubide unibertsal eta baldintzarik gabekoa izan dadin.

ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA:Mujeres Transformando

TOKIA:San Salvador

Etxeko brodatzaileak, esplotazioa eta ikusezintasuna.

El Salvadorren emakumeek beren etxeetatik egiten duten ehungintza lana ikusezin bihurtzen da jendartean, besteak beste, *maquila* enpresei interesatzen zaielako brodatzaileen esplotazio-baldintzak eta lan-eskubideen urraketak ezkutatzea.

Maquila enpresek lan prekarioak eskaini ohi dizkiete herrialdeko landa-eremu txiroetako emakumeei, gehiegizko esplotazio baldintzekin. Horrela, etekin-tarte handia daukate, hilabeteko 56.00\$ dolar inguruko soldaten kontura. Etxetik lan eginez seme-alabak zaintzea errazagoa delako ideia saltzen dute enpresek, baina ondorioz lanaldi bikoitz eta hirukoitzak inposatzen dituzte.

Etxetiko lanak, gainera, loturarik eza sortzen du langileen artean, eta horrek antolatzeko sarea sortzea eragozten du, beren eskubideak defenda ditzaten eta lan-baldintzak hobetzeko negoziazio-proposamenak egin ditzaten. Horrela, enpresek langileak esplotatzen eta espoliatzen dituzte, eta haien aurka indarkeria erabiltzen dute lan-eskubideak urratuz, ahaztu gabe langileek pairatzen duten errepresio nabarmena, mehatxuak eta etengabeko lan-jazarpena. Ekoizpen-helburuak altuak dira, eta bete ezean zigorrak inposatzen dizkiete langileei; hortaz, batzuetan 12 eta 14 ordu artean egon behar dira lanean, eta ondorioz senideak eta seme-alabak tartean sartu behar dituzte.

Etxetiko langileak babestu beharko lituzkeen marko legala existitzen bada ere, praktikan, lan-eskubideak bermatu ordez, lan-baldintzak malguagoak eta prekarioagoak bihurtu ditu marko horrek. El Salvadorreko Estatuak, Lan Ministerioaren bidez, ez ditu eraginkortasunez babesten lan-sektore honi dagozkion eskubideak.

Halaber, etxetiko langileen ekoizpen-kateek agerian uzten dituzte beren ikusezintasun, prekaritate eta esplotazio egoeraren erantzukizun-kateak; estatuak berak, El Salvadorko *maquilek* eta enpresa azpikontratatzaileek osatutako katea, alegia.

Erakundeek ezikusiarena egin, enpresek erantzukizunak saihestu.

Rosak 35 urte zituen eskuz brodatzeko lanak jasotzen hasi zenean. Landa-eremuan bizi da, Paisnal udalerrian, San Salvadorren. Bost seme-alaba ditu, eta egoera ekonomiko prekarioa. Hasieratik eskaini zioten etxetik lan egiteko aukera alabekin egon ahal izateko. Seme nagusiak 15 urte zituen orduan, eta Rosa laguntzen zuen brodatze lanean.

Bizimodu jasangarrietarantz HERRI AUZITEGIA

Lanak eragindako osasun-arazoen, nekearen, bete ezin diren helburuen eta lana ez aitortzearen ondorioz, urte batzuen buruan lanari borondatez uko egiteko dokumentua aurkeztu zuen Rosak; enplegatzailleak, ordea, ez zuen dokumentua sinatu nahi izan, inolako azalpenik eman gabe.

Lana borondatez uzteko eskubidea eta lan egindako denborarengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea aitortutako eskubideak dira, etxetiko langileek aldarrikatzen dituztenak; izan ere, enpresak 15 egun ditu kalteak ordaintzeko, eta ordaindu ezean, arrazoirik gabeko kaleratzea dela ebazten da eta epaitegian salatu daiteke.

Etxetiko langileen eskubideak bermatu behar dituzten erakundeek adierazten dute ez dutela *“lan-modalitate hau ezagutzen”*, eta ezagutu arren, ez dituzte haien eskubideak bermatzen. Horrez gain enpresek lan-erantzukizunak saihesten dituzte, behin-behineko langileak edo zerbitzu-prestazioak direla argudiatuta.